



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Jose Maria Alzuri Vertiz
Maria Larretxea Echeverria
Ainhoa Bereau Altxu
Pedro Francisco Mindeguia Elizalde
Miren Ilarregui Belarra
Naiara Arretxea Gorosterrazu
(Kontuhartzailea)

2024ko azaroaren 25ean, 19:30ak direnean, ohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Francisco Javier Bereau Miquelarena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

MAITANE ERASUN, IRUNE LEKAROS ETA ROSA SANTESTEBAN SARTZEN DIRA

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak akta aurkeztu ondoren, bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak hurrengoa erabaki du:

Alde 6
Abstentzio 1

1.- 2024ko irailaren 24 eta urriaren 29ko aktak onartzea.

2. 2023KO KONTUEN IXTEA.

2023ko kontuen espedientea aztertu ostean, udalbatzak Kontuen Batzorde Berezia gisa arituz, aho batez hurrengoa erabaki du:

1.- Aldeko txostena ematea 2023ko kontuei.

2.- Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3.- Erakustaldi publikoaren berri eman Udaletxeko iragarki-taulan.

****NAIARA ARRETXEA ATERATZEN DA****



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

3. 2025KO TASAK.

Udalburuak 2025ko zerga, tasa eta prezio publikoak aurkeztu egin ditu. Aurkeztutako 2025ko zerga, tasa eta prezio publikoak, 2024koen berdina dira, hurrengo aldaketekin:

- Kontribuzioarentzako kuota bakarra onartzea % 0,25koa.
- Auzalana 50eurokoa.
- Mendiko pista **Mendi pistatik pasatzea 1,5 €/M3 ordaintzea.**

Azalpenen ondoren Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 6

Abstentzio 1

1.- 2025ko zerga, tasa eta prezio publikoak onartzea.

2.- 2025ko zerga, tasa eta prezio publikoak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea

4. BAGALDE ETA GANBELAR OIHAN ENKANTEA: SOBRE IREKITZEA.

Udalbatza kontratazio mahaia bezala arituz, oihan enkantera aurkeztu den eskaintza ireki ditu. Bi eskaintza aurkeztu dira. Altzuri Mendi lanak, SL eta Zubillaga Saralegui, SL.

Hasteko, agiri administratiboan gutun azalak ireki dira plegu administratiboan ezartzen zen bezala. Aurkeztutako agiriak aztertuta, aurkeztu diren enpresak enkantean onartzen dira.

Ondoren Idazkariak eskaintza ekonomikoaren gutun azala ireki du, hurrengo emaitza lortuz:

- Altzuri Mendi lanak, SL. enpresak 33.836,54€ BEZ kanpo (HOGEITA HAMAHIRU MILA ZORTZIREHUN ETA HOGEITA HAMASEI EURO ETA BERROGEITA HAMALAU XENTIMO) eskaini ditu enkantean ateratzen zen Bagalde eta Ganbelar parajeko lotea eskuratzeko.

- Zubillaga Saralegui, SL.. enpresak 30.333,00 BEZ kanpo (HOGEITA HAMAR MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU EURO) eskaini ditu enkantean ateratzen zen Bagalde eta Ganbelar parajeko lotea eskuratzeko.

Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak **hurrengoa erabaki du aho batez:**



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

1.- Altzuri Mendi lanak, SL enpresa proposatzea lotearen esleipenerako, lotearen aprobetxamendua bere eskaintzaren baldintzen eta pleguen baldintzen arabera egin beharko delarik.

2.- Akordio hau Iragarki Oholean argitaratzea 6/1990 Foru legearen 229. artikulua aipatzen duen "sexteo"-a egin ahal izateko.

3.- 10 eguneko epea ematea esleipendunari behar diren agiri administratiboak aurkeztu ditzan (aitorpen arduratsuan aipatu duenarekin bat).

4.- Akordioa esleipendunari jakinaraztea.

5. ZUBIETA, ITUREN, ELGORRRIAGA ETA DONEZTEBE UDALERRIETAN "URAREN BIDEA" BIZIKLETA BIDE GISA EGOKITZEKO OBRAK KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA. ESLEIPENA.

Iturengo udalena Udalean, 2024ko azaroaren 25an 11:20tan, Kontratazio Mahaia bildu zen, Dokumentazio Administratibo eta Ekonomikoa irekitzeko, administrazio Klausula Partikularren Pleguan xedatu bezala, **"ZUBIETA, ITUREN, ELGORRRIAGA ETA DONEZTEBE UDALERRIETAN "URAREN BIDEA" BIZIKLETA BIDE GISA EGOKITZEKO OBRAK KONTRATATZEKO"** espedientean.

Lizitaziora aurkeztu diren enpresen dokumentazio administratiboa idazkariak akta aurkezten du, hurrengoak onartuak egonda:

- SASOI ERAIKUNTZA, S.L.
- CONSTRUCCIONES IZARRA, S.A.
- EXCAVACIONES MIKEL UBIRIA S.L.

Ondoren, dokumentazioa ekonomikoaren emaitzaren akta:

Nº	EMPRESA	Precio	Puntos
1	SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.	80.400,00€	97,04 puntos
2	CONSTRUCCIONES IZARRA, S.A	78.834,12€	98,96 puntos
3	EXCAVACIONES MIKEL UBIRIA SL	78.021,10€	100,00 punto



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Kontratazio Mahaiaren aktak ikusita, osoko bilkurari behin behineko proposamena aurkezten dio **“Zubieta, Ituren, Elgorriaga eta Doneztebe udalerrietan “uraren bidea” bizikleta bide gisa egokitzeako obrak kontratatzeako”** obraren esleipena EXCAVACIONES MIKEL UBIRIA SL enpresari egitea 78.021,10€ eurotan, Bez gabe. Pliegoetan eskatutako dokumentazioa aurkeztu duela egiaztatu du. Espedientea ikusirik, alkateak bozkatzera deitu du eta Osoko Bilkurak, bertaratutako guztiak bat etorrira, aho batez **hurrengoa erabaki du:**

1. EXCAVACIONES MIKEL UBIRIA SL. enpresari esleitzea **“Zubieta, Ituren, Elgorriaga eta Doneztebe udalerrietan “uraren bidea” bizikleta bide gisa egokitzeako”** obren kontratazioa, 78.021,10 € (BEZ gabe).
2. Enpresa esleipendunari kontratua formalizatzeko agirietan eskatzen diren agiriak aurkezteko eskatzea. Pliegoen 8 puntuan.
3. Iturengo alkateari kontratua sinatzeko boterea ematea.
4. Erabakia enpresa esleipendunari, gainerako lizitatzailerei eta Zubieta, Elgorriaga eta Doneztebeko udalei jakinaraztea.”

*** 6 puntua Arkaitz Mindegia zinegotzia aiegatzen denean adostuko da***

7. XEHETASUN AZTERLANAK BEHIN BETIKO ONARPENA.

7.1. Miguel Angel Ezcurra Baleztena xehetasun azterlana: behin betiko onespena.

Udalburuak azaldu du aipaturiko Xehetasun Azterlanari hasierako onespena eman ziola Iturengo Udalak 2024ko irailaren 10ko 85/2024 alkate ebazpenean; espedientea jendaurrean egon zen 2024ko irailaren 19ko 191. NAO-n, inork alegaziorik aurkeztu ez zuelarik.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 63. eta 74. artikuluekin bat etorriz, Udalbatzak **erabaki du:**

Alde 6
Abstentzio 1

- 1.-Miguel Angel Ezcurra Baleztenaren xehetasun azterlana behin betiko onestea.
- 2.- Akordio hau NAO-n argitaratzea Xehetasun azterlanaren testuarekin batera.
- 3.- Onetsi den agiriaren kopia bat Nafarroako Gobernuari helaraztea.
- 4.- Akordioa interesdunei jakinaraztea.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

7.2 Teresa Michelena Ayoroaren xehetasun azterlana: behin betiko onespena.

Udalburuak azaldu du aipaturiko Xehetasun Azterlanari hasierako onespena eman ziola Iturengo Udalak 2024ko irailaren 10ko 84/2024 alkate ebazpenean; espedientea jendaurrean egon zen 2024ko irailaren 19ko 191. NAO-n, inork alegaziorik aurkeztu ez zuelarik.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 63. eta 74. artikuluekin bat etorriz, Udalbatzak **erabaki du**:

Alde 6
Abstentzio 1

- 1.- Teresa Michelena Ayoroa andrearen xehetasun azterlana behin betiko onestea.
- 2.- Proiektua aurkeztu beharko du eta obra lizentzia eskatu.
- 2.- Akordio hau NAO-n argitaratzea Xehetasun azterlanaren testuarekin batera.
- 3.- Onetsi den agiriaren kopia bat Nafarroako Gobernuari helaraztea.
- 4.- Akordioa interesdunei jakinaraztea.

8. HITZARMENAREN ATXIKIMENDUA. “ADMINISTRAZIOA ZUGANDIK HURBIL”

Ikusirik 2022ko azaroaren 18ko (19803) BOE 285 zenbakian argitaratu zen ebazpena Administrazio Orokorren Zuzendaritza Nagusiarena, Estatuko Administrazio Orokorren (Lurralde Politikako eta Memoria Demokratikoko Ministerioa) eta Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioaren (Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioa) arteko hitzarmenari atxikitzeko egintza eredu, administrazioa landamun duko herritarrengana hurbiltzeko proiektu bat abian jartzekoa, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du**:

- 1.- “Administrazioa zugandik hurbil” hitzarmena atxikitzea.
- 2.- Alkateari boterea ematea hitzarmena sinatzeko.
- 3.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

“Acto de adhesión del municipio ITUREN

Don. FRANCISCO JAVIER BEREAU MIQUELARENA, en representación del municipio ITUREN, nombrado por acuerdo de pleno de 17 de junio de 2023 y en ejercicio de sus competencias recogidas en el artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

MANIFIESTA

Que con fecha 17 de noviembre de 2022, se suscribió el CONVENIO ENTRE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DEL ESTADO (MINISTERIO DE POLÍTICA TERRITORIAL) Y LA FEDERACIÓN ESPAÑOLA DE MUNICIPIOS Y PROVINCIAS PARA LA PUESTA EN MARCHA DE UN PROYECTO DE ACERCAMIENTO DE LA ADMINISTRACIÓN A LA CIUDADANÍA DEL MUNDO RURAL

Que, mediante la suscripción del presente acto de adhesión, el municipio ITUREN expresa su voluntad de adherirse a dicho convenio, y acepta de forma incondicionada la totalidad de sus cláusulas en cuanto le sea de aplicación.

La adhesión tiene efectos desde la fecha de inscripción de la presente acta en el Registro Electrónico estatal de Órganos e Instrumentos de Cooperación del sector público estatal, previa firma, y perdurará durante el periodo de vigencia del citado convenio.”

9 .- ESKAERAK.

9.1 Valentziako Dana gertatu ondoren, Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioak (NUKF) zeinbait erakunderekin lankidetzan ari da toki erakundeek eskaintzen ahal duten laguntza modu eraginkorrean bideratu ahal izateko, horregaitik makinaria edo ekarpen ekonomikoen beharrean daude. Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- 500 euroko ekarpen ekonomikoa egitea.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea

9.2.- Juan Angel Mutuberria eta Maialen Mutuberria jaun-andreak 1.poligonoko 68.lurzatian dauden sei haritz amerikarren aprobetxamenduaren eskaera egin zuen. Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.-Bi haritz amerikarren aprobetxamendua onartzea.

2.- Aprobetxamenduaren truke 36,60 euro kobratzea, basozainak egindako balorazioaren arabera.

3.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

9.3.- Iñaki Vera 1.poligonoko 68.lurzatian dauden bi haritz amerikarren aprobetxamenduaren eskaera egin zuen. Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.-Bi haritz amerikarren aprobetxamenduaren eskaera onartzea.

2.- Aprobetxamenduaren truke 27,60 euro kobratzea, basozainak egindako balorazioaren arabera.

3.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

9.4.- Iñaki Vera jauna Garardiko ur bideak garbitu ditu eta lan hori egiteagatik auzolana kontatzea eskatzen du. Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

1.-Eskaera onartzen da eta auzolan bat kontatuko da egindako lanagatik. Gogoratzen zaio Iturengo auzolanaren ordenantzaren arabera, 6.3 puntuan, "Aldez aurretik, auzolana egingo den berri eman behar zaio udalari".

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

ARKAITZ MINDEGIA ZINEGOTZIA SARTZEN DA**

9.5.- Rafael Unchalo jaunak, Pako Altzuriri esleitu zitzaion Elakarrikoa oihan aprobetxamendua ateratzen ari dela eta Maizeneko borda inguruan, bide bazterrean utzitako adarrak eskatzen ditu. Udaltzazak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.-Altzurik lanak bukatu behar ditu eta bukaerako akta ondoren abisatuko zaio.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

9.6.- Mikel Gereka Zelaia, Saharaztan elkartearen izenean, "OPORRAK BAKEAN" 2024 proiektua aurkezten du. Aurten herrian hiru ume saharar egon dira eta laguntza solidarioa eskatzen dute. Udaltzazak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- 200 euroko ekarpen ekonomikoa egitea.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

9.7- Euskal Herriak Euskaraz, euskararen aldeko elkarteak aurten 45 urte bete ditu Udaltzazak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- 100 euroko ekarpen ekonomikoa egitea.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

9.8- Marga Macho andreak Garatama parajea dagoen pista nagusitik Karatamako bordara doan pistari zuloak daudela eta kaltetuta dagoela adierazten du. Gai aztertu ondoren, Udaltzazak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Eskatera onartzea eta aipatutako pistari legarra botatzea.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea

9.9.- Estibaliz Campo Echepelelecu andreak, guraso elkartearen izenean, udaletxean gela bat eskatzen du, buruhandiak egiteko, eguberritako sariak eta beste materiala gordetzeko. Gai aztertu ondoren, Udaltzazak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Eskatera onartzea. Bigarren pisuan ezkerreko gela erabili dezakete, baina dauden beste taldearekin partekatuz, dantza taldeak ere bere materiala gordetzen bait du.

2.- Giltza bakarri emango da eta ezin dira kopiak atera. Kurtso bukaeran, ekainaren 30an bueltatu beharko da.

3.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

9.10.- Ainara Mindegia Baleztena andreak, Aurtizko gurasoek frontoian eguberritako zuhaitza jartzeko baimena eskatzen du eta, farola baten ondoan jarri nahi dutenez, handik



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

argiaren instalazioa egitea. Gai aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du**:

1.- Eskaera onartzea. Herri langilea joango da farolatik argiaren konexioa egiteko. Mantenimendua gurasoen gain geratuko da.

2.- Udaletxeak ez du erantzunik izango sortu daitezkeen kalteengatik.

2.- 2025eko urtarrilaren 7an zuhaitza kendu beharko da eta ingurua txukuna utzi beharko dute.

3.- Akordioa interesatuari jakinaraztea

6. UEMAKO ESTATUTOAK ONARTU ETA ORDEZKARIAREN IZENDAPENA.

UEMAren eskaera ikusirik, Iturengo udalak 2024ko martxoaren 27ko osoko bilkuran 2025. urterako Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean sartzea erabaki zuen. Estatutoak ikusirik eta ordezkaria nor zango den erabaki ondoren, Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak **hurrengoa erabaki du aho batez**:

1. UEMAn, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean, sartzea.

2. Mankomunitatearen Estatutuak onartzeko asmoa adieraztea

3. Iturengo udalaren ordezkaria gisa Arkaitz Mindegia Baleztena izendatzea eta ordezkoa Pedro Francisco Mindegia Elizalde.

4. Erabaki hau jendaurrean edukitzea hilabeteko epean, iragarkia Udaleko iragarki-taulan argitaratzen denetik hasita, UEMA Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko Estatutuen 23. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Erabaki hau behin betikoa izango da jendaurreko epean ez badago alegaziorik.

5. Erabaki hau UEMA, Arkaitz Mindegia Baleztena eta Pedro Francisco Mindegia Elizalde jaunei jakinaraztea.

10.- ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpenak ez dira irakurri.

11.- HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Jarraian Udalbatza hurrengo gaien inguruan jakinaren gainean gelditu da: Ingurumeneko departamenduko Abere ekoizpenaren atalaren ebazpenak abeltzaintza esplotazioan alta emanez: Josu Apezteguiia erasun- zaldiak; Emilia Maria Bereau Baleztena- zaldiak— nafarroako Gobernu Landa Garapeneko Ingurumeneko departamentutik ebazpena Sebastian Lasaga Petrirenari eskatutako luzapena onartuz---Epaimahaigaien behin



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

behineko zerrenda----Kantauri Hidrografikoaren konfederazioaren txostena José Urroz titularra den erreka aprobetxamenduaren eskubidearen amaiera

12.- GALDE-ESKEAK.

Maitane Erasun, Irune Lekaroz eta Rosa Santesteban Aurtizko zabor ontziei buruz galdetzen dute eta 2024ko azaroaren 21ean bidali zitzaien idatzia azaltzen da: markatutako leku berri horretan denak ados daudela aurkeztu behar dute.

Eta bertzerik ezean, 21:00ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

